

XXI argazki lehiaketa

Orain Gorbeialdea, inoiz baino gehiago



2023ko oinarriak

1.- GAIA: Lehiaketaren gaia librea da, eta honako eremu hauetako argazkiak izan daitezke:

→ **Ingurumen naturala, soziala eta artistikoa, eraikinak, ohiturak, ekitaldi kulturalak, azokak eta jaiak, pertsonak, bisita gidatuak, esperientziak, gastronomia, mikologia, eskualdeko jarduera ekonomikoarekin lotutako argazkiak (ostatuak, ostalaritza, merkataritza eta zerbitzuak, industria, nekazal ekoizleak, artisautza, etab.); adibidez, enpresa baten barruan fabrikatzen ari den zerbaiten argazki bat izan daiteke, artzain bat bere eguneroko jardueran, jatetxe edo saltoki bat, etab.**

Argazkietan ezin izango da enpresaren izen komertzialik agertu inon. Gorbeialdeko Kuadrilla osatzen duten udalerrietan hartutako argazkiak besterik ez da onartuko, alegia, ondoren aipatzen diren udalerrietakoak:

Aramaio Arratzua-Ubarrundia Legutio
Urkabustaiz Zigoitia Zuia

2.- PARTAIDEAK:

Hala nahi duten guztiek har dezakete parte.

3.- LANAK AURKEZTEA:

- ❖ Argazkien formatuak **horizontala** izan beharko du, 2024ko horma-egutegiaren parte izateko.
- ❖ Gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Lehenago argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saritu gabekoak izan beharko dute obrek.
- ❖ Originalak koloretan izan behar dira.
- ❖ Argazkiak "jpg" formatuan aurkeztu beharko dira, eta **benetako tamainan gutxienez 300 puntu hazbeteko (dpi) bereizmena izan beharko dute, eta 24 x 16cm-ko gutxienezko neurria (2835 X 1890 px).**
- ❖ Argazkiei azaleko ukituak eman ahal izango zaie, baina ezingo da gehitu edo ezabatu jatorrizko konposizioa aldatuko duen osagairik. Zalantzarik badago edo egiaztatze aldera, artxibo originala eska daiteke.
- ❖ Argazkien datuak artxibatu, biltegitatu eta egiaztatzeari begira, ahal den neurrian argazkiak metadatuarekin aurkeztea gomendatzen da.
- ❖ Aurkezten diren argazkiak pertsonaren baten lehenengo planoak baldin badira, **argazkien agertzen den pertsonaren baimena aurkeztu beharko da argazkiarekin batera.**
- ❖ **LANA BAKOITZA** era honetan aurkeztu beharko da:
Aurkeztutako lan bakoitzeko mezu elektronikoa bat bidaliko da helbide honetara:

argazkiak@gorbeialdea.eus

→ **Mezuaren gain hau idatziko da:**

Argazkiak 23 – "Obraren izenburua"

→ **Mezuaren gorputzean honako informazio hau idatziko dugu:**

1. Obraren izenburua.
2. Argazkia non atara den (kokapen geografikoa eta/edo establezimendua/enpresa).
3. Obra zein udalerriri dagokion.

→ **Mezuari erantsita, 2 dokumentu aurkeztuko dira:**

1. Argazkia
2. **"Egilearen datuak + Izenburua"** izeneko dokumentua, lehiatzailearen datu pertsonal hauekin:
 - Izen-abizenak
 - NANA
 - Helbidea
 - Telefonoa
 - Posta elektronikoa

- ❖ **Pertsona batek obra bat baino gehiago aurkezten baditu,** aurreko puntuko prozedura jarraitu beharko du argazki bakoitzarekin, lehiakide bat baino gehiago balira bezala. Horretarako, mezu elektronikoa bat aurkeztu beharko du obra bakoitzeko.

4.- AURKEZTEKO EPEA:

Lanak posta elektronikoz bidaliko dira, oinarri hauetako 3. puntuan zehazten den bezala.

2023ko urriaren 18a, asteazkena, izango da lanak aurkezteko azken eguna.

Inolako zalantzarik izanez gero, deitu 945 430 167 telefono-zenbakira, 8:30etatik 14:30etara..

5.- SARIAK:

Lehiaketako sariak Gorbeialdeko Kuadrillako edozein saltoki edo establezimendutan gastatzeko txartelak izango dira (sartzen diren enpresen zerrenda bat emango da):

Sarituko da lehiaketaren argazki irabazlea eta 2 argazki udalerrri bakoitzeko (guztira 13 sari):

→ **1. SARIA: 150 euroko txartela.**

→ **UDALERRI bakoitzeko SARIAK** (Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia):

- ✓ **1. saria: 100 euroko txartela.**
- ✓ **2. saria: 75 euroko txartela.**

Sariak guztira: 13 (150 €-ko 1, 100€-ko 6 eta 75 €-ko 6)

Lehiakide bakoitzak, gehienez, bi sari eskura ditzake. Epaimahaiak lehiaketaren gaia, kalitatea eta erabili den teknika baloratuko ditu. Epaimahaiak emateke utzi dezake sariren bat.

6.- EPAIMAHAI:

Gorbeialdeko Kuadrillako presidenteak izendatuko ditu epaimahaiakideak eta ezin izango da bere erabakiaren aurka jo.

7.- LANEN JABETZA:

Saritutako argazkiak Gorbeialdeko Kuadrillarenak izango dira, beraz jabe bakarra izanik, eta argazkiak ustiatzeko eskubideak Gorbeialdeko Kuadrillaren esku utziko dituzte egileak.

8.- SARI BANAKETA ETA LANEN ERAKUSKETA ETA JABETZA

Sari banaketa Murgian izango da, jendaurrean, eta interesdunei abisatuko zaie.

Saritutako lanak 2023ko horma-egutegian agertuko dira, eta, ahal den neurrian, jendaurrean ikusgai jarriko dira, Kuadrillako egoitzan. Argazkiaren titulua, egilea eta argazkiaren kokalekua ere jendaurrean jarriko dira.

9.- OHARRAK:

- Oinarrietan arautu gabeko kasuak interpretatzeko eta erabakitzeko ahalmena du epaimahaiak eta, horrela ezean, Gorbeialdeko Kuadrillako Presidenteak.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak ezagutu eta onartu izana dakar.

10.- DATUEN BABESA:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (GDPR) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, zera jakinarazten dizugu: emandako datu pertsonalak Gorbeialdeko Kuadrillako XX. Argazki-lehiaketarako bakarrik erabiliko direla. Datu horiek isilpekoak izango dira. Datu horiek ez zaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatuzko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Gorbeialdeko Kuadrilla, Udaletxe Plaza, 1-1º P.K. 01130 Murgia (Araba) edo jon@gorbeialdea.eus helbidera idatziz.